



**INDARKERIARI  
ZILEGITASUNA  
KENDU**

**Gesto por la Paz**



# Gesto por la Paz

P.K. 10.152 - 48080 Bilbao

Tfnoa.: 944 163 929 - Fax: 944 153 285

[gesto@gesto.org](mailto:gesto@gesto.org) - [www.gesto.org](http://www.gesto.org)

## SARRERA

Duela 40 urtetik aurrera, ETaren indarkeria etengabe azaldu da gure gizartean. Herritarrok mehatxuarekin, askatasunik ezarekin eta hilketekin batera bizi izan gara eta askok zuzenean jasan du hori guztia. Mehatxuak, jazarpenak eta hilketak gatzka politiko bat aitzakiatzat hartuz justifikatu nahi izan diren balizko helburu politiko batzuen izenean gauzatu izan dira.

Indarkeriaz eta saminez jantzitako historia honen bukaera ETaren eta berau babesten dutenen esku dago bakar-bakarrik. Beraiena da, eta ez beste inorena, espiral hau geldiarazteko erantzukizuna. Gainerako herritarrok gure jarduera normalizaziorantz bideratzen ahalegindu behar dugu; hau da, politikan zein gizarte eta giza harremanetan, terrorismoak horietan hedatu duen hondatze eta degradazioa gainditzeko eta, era berean, biktimenganako aitorten eta elkartasunean aurrera egiteko lan egin behar dugu. Kontua ez da gertatutakoa ahaztu eta hutsetik hastea, gure ekarpena ezinbestekoa den hartan jardutea baizik: biktimei dagokien ordaina eman eta normaltasun sozial eta politikora hurreratu Euskal Herrian, izua darabiltenak, erabiltzeari uko egiteko erabakiaren erantzukizunaren aurrean utziz.

Irrikatzen dugun bake eta normalizaziorako ibilbide hau oinarri sendoetatik egin behar dugu, terrorismoak, lehenengo eta behin biktima zuzenei, eta baita gizarte osoari ere, bizikidetasun eta politikan eragin dion egundoko kalteari aurre egin ahal izateko. **Indarkeriari zilegitasuna kentzea da** funtsezko oinarri horietako bat. Kontzeptu eta jarrera honek, ETak egin duenarekin eta gaur egun egiten diharduenarekin bat ez etortzea baino zerbaiz gehiago adierazten du. Agiri honetan, kontzeptu hori garatu nahi dugu eta dakartzan ondorio praktikoak eta jarrerak aurkeztu.

## INDARKERIAREN ONDORIO LARRIAK

Indarkeria honek gure gizartean utzi eta uzten dituen arrastoez jabetu behar dugu. Indarkeriaren ondorioak ezagutu eta aitortu egin behar ditugu, urrats sendoz, zilegitasuna kentzea gauzatzeko, berrogei urtez sortutako akats eta desitxuratzeko zuzenduz.

Sortu eta sortzen dituen biktimak dira terrorismoaren lehenengo ondorioa, eta gainera, larriena. Euskal Herriaren azken urteotako historia oso une bortitz gogorrez eta izu zein saminaren aurrean bakarrik dauden biktimez josita dago. Ezingo gure egoeraren azterketa zuzenik egin, euskal gizarteak urte luzez

Indarkeriaz eta saminez jantzitako historia honen bukaera ETaren eta berau babesten dutenen esku dago bakar-bakarrik. Beraiena da, eta ez beste inorena, espiral hau geldiarazteko erantzukizuna.

en OFF

Indarkeriaren ondorio hauek aitortzea izango da normalizazioa gauzatzeari begira jarri behar dugun zimendua, bihar-etzi horrela bakarrik saihestuko ditugulako orain arte egin ditugun hutsegiteak.

en OFF

erakutsi izan duen jarrera pasiboa aitortuko ez bagenu. Azaldu nahi izan da jarrera hori, baina zaila da justifikatzea.

Zitala izan zen isiltasuna, gizaki baten aurkako indarkeriaren erabileraren aurrean, baina are eta okerragoa izan zen biktima ia gizaratearen etsai bihurtzea, hutsune izozgarria sortuz bere inguruan, batez ere biktimak, terrorismoak guztioi egin zigun eraso zuzenean jasan izan duten gizarateko kide izan zirenean eta orain ere badirenean. Terrorismoak ez du gizon edo emakume jakin bat aukeratzen bere giza kalitateagatik, guztiontzat adierazten duenagatik eta bere hilketak gizaratean bertan eragin dezakeen kalteagatik baizik. Eraso guztion aurkakoa izan zela onartzea da biktimen aitorpenerako lehenengo eta funtsezko urratsa. Gauzak aldatu dira, baina oraindik asko dago egiteko, baita gainditu beharreko axolagabekeria, arindu beharreko samin asko eta berreskuratu beharreko konfiantza asko ere.

Era berean, indarkeriak sortutako beste ondorio batzuez ere jabetu behar dugu:

1. Giza bizitza edo beste funtsezko eskubide batzuk zergati edo ideario politiko batzuen zerbitzurako tresna bihur daitezkeela pentsatuz sozializatu izan direnen **narriadura etikoa** antzematen dugu. Hilketa edo biktimen jazarpena justifikatzeko edo babesteko, hauek etsaitzat edo norbere ideal eta sentimenduen erasotzailatzat hartu behar dira eta, horrela jokatu ezkerro, beraienganako gorrotoa bizten da.
2. Gure gizaratean, nahitaez beren sentimenduak kontrajarritik, elkarren aurka dauden **“bando bi” egotea sustatu izan da**. Egoera honetaz gain, beste jarrera batzuk gaitzetsi ere egin dira, esate baterako: bestearen samina aitortzea edo besteari elkartzasuna erakustea. Horrela, bakarrik “gutarren” oinazea kontuan hartzen duen moral bikoitza izan da nagusi gure artean. Denbora luzez, indarkeriaren ondorioen giza alderdia alde batera utzi izan da, giza sentimenduen politizazioa sustatuz.
3. Eztabaida politikoan, indarkeria subiranotasunari buruzko planteamendu batzuekin lotzeak **gizaratearen nortasun aniztasuna arazotzat, eta ez aberastasunaren erakusletzat, hartzea ekarri du**. Horrela, aldeak aragoitu egiten dira eta ustez aurrez aurre dauden elkarteen nortasun zeinu bezala erabiltzen dira.
4. ETA eta bere ingurua indarkeriaren erabilera justifikatzen saiatu da, erakunde demokratiko eta politikoaren erabateko deskalifikazioaren bidez, bere helburu politikoak ezartzeko. Ez du onartu aipaturiko erakunde horiek

bidea direna, eta bere helburuak lortzeko oztopotzat hartu ditu; hori dela-eta azaltzen da totalitarismoaz inposatzeko balizko beharra.

5. Indarkeriaren eta politikaren arteko loturaren eraginez, urte askotan ezin izan dira bereiztu 'prepartidista' deitutako nahitaezko **adostasun etikoak** eta egiteko **politiko desberdinen arteko ohiko eztabaida**. Ondorioz, aurkari politikoa etsaitzat hartzea dakarren haustura sortu da politikan. Zoritxarrez, haustura honek terrorismoaren aurreko demokraten adostasun eta batasunaren apurketa eragin du eta, horren eraginez, gizarteak inoiz baino desarmatuago geratu da terrorismoaren aurrean etika eta politikari dagokionez.

6. **Erraz antzeman daiteke zailtasun egiazko eta zehatza herri honetan politika egiteko, ETAre indarkeriaren eraginez**. Aukera ez nazionalistak defendatzen dituzten pertsonen aurkako mehatxu sistematikoa izan da horren adierazpenik gogorren eta larriena.

7. Herritarren nolabaiteko utzikeria antzematen dugu Zuzenbidezko estatua terrorismoaren aurkako borrokan izan dezakeen hondatzearen aurrean defendatzerakoan. Indarkeriaz jantzitako hainbeste urtek eragindako gogaitasun eta amorruek ezin gaituzte, egundoko izu honi aurre egiteko, eraginkortasunaren eta ahalik eta bizkorren deuseztatzearen mesedetan, ETAre aurka denak balio duela pentsatzera eramanez. **Zuzenbidezko estatuaren erabateko defentsa egin behar dugu**, eta giza eskubideak eta eskubide demokratikoak gizaki bakar baten aurka ere murriztu ez daitezten ahalegindu.

8. Egin dituzten delitu larrien eraginez, makina bat jende dago kartzelan jarduera terroristengatik eta hauen goerak samina eta oinazea eragiten du bere senide eta adiskideen artean.

Indarkeriaren ondorio hauek aitortzea izango da normalizazioa gauzatzeari begira jarri behar dugun zimendua, bihar-etzi horrela bakarrik saihestuko ditugulako orain arte egin ditugun hutsegiteak. Bakearen aldeko Koordinakundearentzat, indarkeriari gizarte zein politikan zilegitasuna kentzea da normalizaziorantzko funtsezko urratsa. Aurrerapen sendo eta erabakigarria egingo badugu, ziurtasun honi eutsiko diogu: indarkeria horren erabilera ez dela justifikagarria izan eta gaur egun ere ezin dela justifikatu.

Urte hauetan, gizarteak funtsezko eginkizuna izan du, politika egiterakoan indarkeriari uko egitea ezinbestekoa dela ikustarazten. Azkenaldian, makina bat bider ikusi ahal izan dugu euskal herritarren indarkeriaren aurkako adierazpenak eta, apurka-apurka, gizartearen gehiengoak bere egin ditu erakustaldiok.

en OFF

Indarkeria babesten  
edo erabiltzen duenak  
berak, automatikoki  
uzten du bere burua  
jarduera politikotik  
kanpo.

en OFF

Urte hauetan, gizarteak funtsezko eginkizuna izan du, politikagintzan indarkeriari uko egitea ezinbestekoa dela erakutsiz. Gure memorian isiltasunez eta azalpen faltsuez beteriko urte tristeak badaude ere, azkenaldian, makina bat bider ikusi ahal izan dugu euskal herritarren indarkeriaren aurkako adierazpenak eta, apurka-apurka, gizartearen gehiengoak bere egin ditu erakustaldiok. Gizarte erantzun honek, gizartearen sendotasun moralak eta indarkeriaren aldeko babesa murriztea ekarri du.

## ZERGATIK DA EZINBESTEKOA INDARKERIARI ZILEGITASUNA KENTZEA?

- **Beharrezkoa eta biktimekiko dugun betekizuna delako.** Biktimei ordain zuzen eta eraginkorra ematea dağokigu. Biktimak egote hutsak indarkeriari buruzko edozein aitzakia eta justifikazio ezabatzea exijitzen digu. Horrela bakarrik lagun geniezaieke biktimei, ahalik eta bizitzarik normalena berreskura dezaten, baita gizarteaganako eta bizikidetasunaganako konfiantza ere.
- **Indarkeria, politika, gizarte eta moral arloan garaitu behar dugulako.** Indarkeria arma politiko bezala erabiltzeari ate guztiak itxi behar dizkiogu, inork ez dezan atzera bueltatzeko aukerarik ikusi eta indarrez nagusitzen saiatzeko tentaldian jausi ez dadin. Azken batean, indarkeria inork inoiz baliagarritzat uler ez dezan eta gizarte osoari eta, batez ere, terrorismoaren eragin zuzena jasan dutenei, egundoko samina eragin diela ahantz ez dezan.
- **Demokraziak ezin diolako inolako emate politikorik egin terrorismoari.** Sistema demokratikoaren muinak berak terrorismoaren aurrean amore ematea galarazten du. Hori egin ezker, demokrazia bera traizionatuko genuke eta, gainera, izuaren bidez nagusitu nahi zirenen aurrean urteotan defendatu dugunari uko egitea litzateke.
- Terrorismoak eragindako distortsioaren aurrean, normalizazioa jadesteko prozesuari ekiteko bidea delako.
- Indarkeriari zilegitasun oro argi eta garbi eta irmo kentzea delako eztabaida politikoa indarkeriaren mehatxutik behin-betiko askatzeko bide bakarra.
- Akatsez eta izuez beteriko urte asko daramatzagulako, eta **behar-beharrezkoa delako balio etiko eta demokratikoetan oinarritutako**

**zutabe sendoak jartzea**, beraien gainean zuzentasun eta bakez bustitako geroa finkatzeko.

## ZER DA ETA ZER DAKAR INDARKERIARI ZILEGITASUNA KENTZEAK?

### 1. Gizarteak bere egin behar du indarkeriaren aurkako gaitzespen moralak.

Arrazoi estrategikoetatik eta egoeraren araberako egokitasunetik haratago, ezinbestekotzat jotzen dugu gizarteak, desberdintasun ideologikoak alde batera utzita, indarkeria terrorista erabiltzeko arrazoi eta justifikaziorik ez dela egon onar eta defenda dezala eta, ondorioz, biziaren eta giza eskubideen erabateko defentsa egin dezala. Hona hemen gaitzespen moral honen funtsezko argudio batzuk:

- **Bizirako eskubidea.** Bizirako eskubidea da gizakiaren gainerako eskubideen euskarria eta, ondorioz, guztietan baliotsuena. Zentzugabekeria etikoa da desberdin pentsatzen edo sentitzen duena mehatxatzea eta hiltzea. Gizakiaren bizia eskubide besterenezina da eta ez dago eskubide hau bere zerbitzura jar dezakeen arrazoi bakar bat ere, nahiz eta guztiz zuzena iruditu. Giza biziaren goreneko balioa berreskuratu behar dugu.
- **Askatasunerako eskubidea.** Demokrazian, gizaki orok bere ideia eta proposamenak jendaurrean defendatzeko eta adierazteko eskubidea du, baldin eta ideia eta proposamen horiek oinarri demokratikoak eta Giza Eskubideak defendatzen badituzte.
- Erakundeek gizon eta emakumeen segurtasunaren eta askatasunaren aurka egiten diren delituak jazarri behar dituzte eta beraiei justizia ezarri behar die, **legalitatea eta giza eskubideak zehatz-mehatz errespetatuz.**

### 2. Gizarteak, bere erakunde eta indar politikoak buru dituela, indarkeriaren biktimen aldeko aitortpen, elkartasun eta oroipenean irmotasunez konprometitu behar du.

Guretzat, lehenetsuna du gizarteak indarkeriaren biktimak gizarte osoaren aurkakoa zen erasoaren zuzenean jasaten duten auzokideak ditugula aitortzeak,

Ezinbestekotzat jotzen dugu gizarteak, desberdintasun ideologikoak alde batera utzita, indarkeria terrorista erabiltzeko arrazoi eta justifikaziorik ez dela egon onar eta defenda dezala eta, ondorioz, biziaren eta giza eskubideen erabateko defentsa egin dezala.

en OFF

Gatazka bakar batek ere ez gaitu nahitaez indarkeria erabiltzera bultzatzen hura konpontzeko.

en OFF

ETAk ez dituelako bere helburuak direnagatik aukeratzen, bizi diren gizartearentzat adierazten dutenagatik baizik. Gertaera honek ondorio praktikoa batzuk izan behar ditu:

- Izuak biktimei eragin dien ezin justifikatzeko kaltea aitortu, errespetu sakona erakutsi sortutako sufrimenduetatik, eta gizarteak berak ere, urteetan zehar, azalpen ez-moral eta faltsuak bilatu eta bizkar emanaz, biktimei eragin dien samina aitortu.
- Biktimen aldeko elkartasun mugagabea garatu. Era guztietako aitorten publiko eta pribatuaren gainetik, egia ezagutzeko eta zuzentasuna gauzatzen oinarritu behar duen elkartasuna. Eta, jakina, merezi duten errespetua erakutsi; esaterako, mina eragin dien pertsona horiek ez goratzea, ezta omentzea ere, dakarren errespetua.

### 3. Gizarte eta politika testuinguruari lotutako indarkeriaren edozein aitzakiari irmotasunez uko egin behar diogu.

Urte luze hauetan indarkeria erabili izan bada, aukera hori egin delako da, eta ez erabaki historiko saihestezinenaren emaitza, gizarteko talde zehatz batzuek azaldu nahi izan duten bezala. Bizitzea dagokigun une historikoaren arduradun petoak garelako onartu behar dugu, historia guk geuk egiten dugulako, eta desberdina izan zitekeelako.

Indarkeriari zilegitasuna kentzeak zera eragin behar du: indarkeriaren eta gizarte honetan Euskal Herriarekin identifikatzeko era desberdinetatik sortzen den arazo politikoaren artean kausazko lokarria ezarri nahi dutenei indar moral eta politikoa kentzea. Gaur egungo gizarte eta politika egoeran, inolako giza sufrimendu, frustrazio edo antsia politikok ezin dezake indarkeria beste erkide batzuen aurka erabiltzea babestu edo justifikatu. Gatazka bakar batek ere ez gaitu nahitaez indarkeria erabiltzera bultzatzen hura konpontzeko. Hortaz, terrorismoa, berez, ez dela mehatxua, indarkeriaren mehatxuaren behin-betiko desagertpenaren truke ordaindu behar dugun prezioa konponbidetzat duen auzi politikoaren isla baizik jasotzen dueneko argumentua baztertu egin behar dugu. Ezinbestekoa da indarkeria tresna politiko bezala ez justifikatzea, ez arrazoitzea, ez zuzitzea... , eta bere erabilera okerreko erabakiaren fruitutzat agertzera ematea.

Era berean, gatazka politikoa desmitifikatu beharra dago: ez dugu heldu ezineko gaitzat hartu behar, ezta gaur egungo adostasunei buruzko erabateko aldatetarik dakartzaten behin-betiko soluzioak eskatzen dituen auzitzat ere. Gizarte moderno



guztietan, herritarrek gatazka politikoak bizi dituzte eta, jarduera politikoaren bidez, zehatu egiten dira, ondoz ondoko soluzio partzial hitzartuak aurkitzeko.

#### **4. Indarkeriaren eta politikaren arteko balizko lotura behin-betiko desegin behar dugu.**

Indarkeriaren erabilera, politika egitearen eta elkarrizketan jardutearen aurkakoa da eta, horregatik, gure iritzi, politika eta indarkeria binomioa deuseztatzeak bizitza demokratikoan partehartze bete izatea dakar. Alderantziz, indarkeria babesten edo erabiltzen duenak berak, automatikoki uzten du bere burua jarduera politikotik kanpo.

Ez dago nahitaezko loturarik ETaren indarkeriaren eta arazo politiko bakar baten artean. Arazo politikoak egoteak (Euskal Herriko arazo politikoek kezkatzen eta arduratzen diren gizabanako eta gizatalde gehienek indarkeria gaitzesten dute) ez du eragiten, nahitaez, ETaren indarkeria. ETaren indarkeria, arazo politiko horiei buruz eta berauek konpontzeko moduari buruz ikuspuntu jakin bat duten pertsonentzat baizik ez da beharrezkoa. Hau da, terrorismoa, Euskal Herriko egoeraren ikuspuntu jakin baten oinarrituta bihurtzen da borrokarako tresna. Hain zuzen ere, indarkeria darabiltenek aipatzen duten gatazka politikoak indarkeriaren erabileraren garaitik haratago ere iraungo du.

Gure etorkizunaren inguruko erabaki politikoak erabat bereiztu behar dira indarkeriaren mehatxu eta txantajetik eta indarkeria erabiltzeari uko egitetik. Indarkeria darabiltenek, horren bitartez ez dituztela beren helburuak lortuko ikusi behar dute, legez kontrakoa litzatekeelako indarkeria uzteagatik ordain politikoak ematea. Beraz, egitasmo politiko guztiak indarkeriari zilegitasun politiko kentzeko konpromisoa hartu behar dute eta biktimei eragin zaien kaltearen aitorpenarekin bat egin.

Gainera, gure etorkizunari buruzko eztabaida politikoei ekiterakoan, argi eta garbi adierazi behar dugu ondorengo hau: ETaren indarkeriak eta bere mehatxuak zailtasun itzelak dakartzala askatasunean eta aukera berdinetan politika normalizatua egiteko, batez ere nazionalistak ez diren alderdientzat. Beste alde batetik, ETA egoteak ez luke gure etorkizun politikoari buruzko eztabaida gelditu behar. Beraz, bi baieztatzen hauek —politika egin indarkeria egon arren eta ETak ez dezala politika zuzendu- uztartzeak, gure gizartearen etorkizun politikoari buruzko edozein proposamen esanguratsu lantzerakoan indarkeriarik gabeko egoeretan baino bidezko adostasun handiagoak bilatzera bultzatzen gaitu. Horrela, beraz, indarkeriak ez du eztabaida politikoa zuzendu behar, are gehiago, eztabaida politikorako aukerak murriztu egiten ditu eta, batez ere, eztabaida politikoa

**Gure etorkizunaren inguruko erabaki politikoak erabat bereiztu behar dira indarkeriaren mehatxu eta txantajetik eta indarkeria erabiltzeari uko egitetik.**

en OFF

Gure gizartearen aurkako eraso terrorista, aniztasunaren ezeztapena da. Era bateko zein besteko egitasmo politikoek erabateko errespetua erakutsi behar diote dagoen aniztasunari.

en OFF

askatasunean eta aukera berdinekin egitea galarazten du, gizarte honek askatasunez erabakitzeke duen oztoporik nagusiena terrorismoa izan delako eta, gaur egun ere, badelako.

### 5. Aniztasunetik elkarbizitza baketsua gauzatzearen alde jardun behar dugu.

Euskadi eta Nafarroa gizarte plural bezala eratu izan dira kultura eta politika mailan. Euskal Herriaz hitz egitea, ezin ukatuzko aniztasuna erakusten duen giza errealitateaz jardutea da. Errealitate anitz hau, zorritzarekin men egin behar diogun egoera baino, giza aberastasunerako aparteko aukera dela aitortzea eta onartzea, ezinbesteko baldintza da geroa bake eta askatasunean eraikitzeke.

Aniztasuna aitortzea, errealitatea ulertzeko era desberdinak daudela aitortzea da. Baina aitortpen hori ez da nahikoa, besteen onarpen osoarekin batera ez badator. Tolerantziarik gabeko aniztasunak, azkenean, urruntzea, banantzea edo aurkakotasuna eragiten du. Tolerantziarik gabeko aniztasunak ez du elkartzten, ez uztartzen, ez batzen.

Gure gizartearen aurkako eraso terrorista, aniztasunaren ezeztapena da, gizarte horretako kideek beren nortasunaren inguruan dituzten ikuskera desberdinen gutxienekeo errespeturik gabe. Era bateko zein besteko egitasmo politikoek erabateko errespetua erakutsi behar diote dagoen aniztasunari.

Elkarbizitza zibilizatu berreskuratuko badugu, bizitza politikoan elkarriketa erabili behar dugu harremanetarako funtsezko mekanismo gisa, gure ustez elkarriketa delako biderik gizatiarrena egoera gatazkatsuek konpontzeko. Elkarriketak lagundu behar digu desberdin pentsatzen dutenen jarrerak ezagutzen eta kontrastatzen, eta tolerantziaz, desberdintasunak eta desadostasunak errespetatuz, jardutea eskatzen du. ETA eta berau egotea justifikatzen dutenak berak geratzen dira prozesu honetatik kanpo, elkarriketaren ikuspuntu hau ukatzen dutelako, indarkeria erabiliz beren balizko helburu politikoak baldintzatu eta inposatu guran.

Indarkeriari eta beronen ondorioei lotutako auzi 'prepartidistetan' akordioa eta adostasuna jadesatearen alde lan egingo duen politikaren ikuskera eta jarduera garatu behar dugu, gure elkarbizitzaren oinarriak finkatzeko eta nortasun baztertzailerei zilegitasuna kentzeko gauza den jarduera eta ikuskera politikoa, hain zuzen ere.

Gurea bezalako gizarte anitzean egitasmo politiko desberdinak daudela eta hori guztiz bidezkoa dela aitortuta, balizko elkarguneak bilatu behar ditugu, beti ere gizaki guztien Giza Eskubideak, beren duintasuna eta bere askatasuna errespetatuz.

Geroko belaunaldiak errespetua, elkarrizketa eraikitzailea, zuzentasuna eta elkartasuna bezalako balioetan hezteko ezinbestekoa da gure geroa zuzentasunez, bakez eta askatasunez jantzita eraikitzeko.

Gizarteak bizikidetasunerako bide adostuak bilatzeko konpromisoa hartu behar du. Demokrazia eta eztabaida politiko eta soziala berreskuratzean datza; horien bitartez, gizarteko gehiengoarentzat mesedegarriak diren egitasmo politikoak aurrera eramanez daitezke, gutxiengoaren interesak ahaztu gabe.

## **6. Terrorismoaren aurkako borroka zehatz-mehatz errespetatu behar ditu legeria eta giza eskubideak.**

**Terrorismoaren aurkako borroka, pertsona guztientzako giza eskubideak eta eskubide demokratikoak zehatz-mehatz errespetatu** eta gure Zuzenbidezko estatuko bizikidetasun demokratikoa zuzentzen duten arauak inpartzialtasunez ezarri egin behar da, arreta berezia jarri funtsezko eskubideei dagozkien neurriak hartzerakoan eta demokrazian ezohiko jarduerak diren eta ohikotasunez jo gabe.

Estatuko segurtasun indarrek izan dituzten jarduerak ez-legitimoak eta hauen aurrean gizartearen zati handi batek izan duen jarrera aitortu beharra dago. Indarkeriari zilegitasuna kendu behar zaiola aldarrikatzen dugu eta horri begira Estatuak burutu dezakeen indarraren larregizko erabilera hau ere azaleratu egin behar dugu.

Adierazpen askatasunaren aurkako eta partehartze politikoa arautzeko jarduerak judizialen oinarriek sendoak izan behar dute eta delitua egotearen frogei erantzun behar diete. Honen haritik, ez dugu onartzen garrantzi handiko kautelazko neurriak ezartzea, praktikan behin-betiko eta atzerazekin direlako.

Bakearen aldeko Koordinakundeak, kartzela politikak ez duela egoera politiko desberdinen menpe egon behar eta ez dela terrorismoaren aurkako politikaren tresnatzat hartu behar defendatu du. Horregatik, presoak banan-banan hartzea eskatu dugu eta familiei eragindako kaltea desagerraraztea. Ondorioz, presoek beren zigorrak jatorrizko lekutik hurbil betetzea defendatzen dugu.

**Adierazpen askatasunaren aurkako eta partehartze politikoa arautzeko jarduerak judizialen oinarriek sendoak izan behar dute eta delitua egotearen frogei erantzun behar diete.**

en OFF

Une honetan, indarkeria terroristari uko egitea oinarri sendo batzuetatik egitea funtsezkoa dela uste dugu, oinarri demokratikoen defentsa, giza eskubideen defentsa, eta bereziki, euskal gizartearen aniztasunaren errespetu eta defentsa bermatuz.

en OFF

'Biktimarioak' zuzenbide penala ezarrita zigortuko dituen eta, era berean, zigortuaren errehabilitazioa ahazten ez duen justiziaren aldekoak gara; zigortuaren errehabilitazio horrek indarkeriaren erabileraren eta indarkeriaren biktimen inguruko eskakizun batzuk ekarri beharko lituzke, gainera. Presoen gizarteratzea, gizartearen beraren garaipena dela aldarrikatzen dugu, beti ere legearen aurrean daşokien berdintasunaren oinarritik eta beraietako bakoitzaren eboluzio indibiduala kontuan hartuz bakarrik. Bilakaera pertsonal horren irizpide zuzentzaileak hauek izango dira: helburu politikoak lortzeko indarkeria erabiltzeari uko egitea; arau eta oinarri demokratikoak onartzea, eta gizarteari zein, batez ere, biktimei eragindako kaltea aitortzea. Irizpide horiek inoiz ez dute ekarriko sistema demokratikoan defenda daitezkeen ideia politikoei uko egiteko eskakizuna.

## BUKAERA

Une honetan, indarkeria terroristari uko egitea oinarri sendo batzuetatik egitea funtsezkoa dela uste dugu; hau da, lehenengo eta behin, gaur egun basakeria horren jarraipenari aurre egitea bermatu behar da, baina, aldi berean, oinarri demokratikoen defentsa, giza eskubideen defentsa, eta bereziki, euskal gizartearen aniztasunaren errespetu eta defentsa bermatuz.

Oinarri hauen abiapuntua, gure ikuspuntutik, indarkeriari zilegitasuna kentzea nork bere egitea eta defendatzea da, ez bakarrik teorian, erakundeen, alderdi politikoen eta, orokorrean, gizartearen eguneroko eginkizunetan eragina duten jarrerren bitartez baizik, hala nola:

- Gizarteak bere egin behar du indarkeriaren gaitzespen moralia.
- Gizarteak, bere erakunde eta indar politikoak buru dituela, indarkeriaren biktimen aldeko aitorten, elkartasun eta oroimenean sendo konprometitu behar du.
- Gizarte eta politika testuinguruari lotutako indarkeriaren aldeko edozein aitzakiari uko egin behar zaio argi eta garbi.
- Indarkeria eta politikaren arteko balizko lokarria behin-betiko deuseztatu behar dugu.
- Aniztasunetik elkarbizitza baketsua gauzatzearen aldeko erabateko apustua egin behar dugu.
- Terrorismoaren aurkako borrokak zehatz-mehatz errespetatuko ditu legeria eta giza eskubideak.